Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra

Euskararen normalizazioren esparruan Gipuzkoako udaletako teknikarien arteko lankidetza programa bat gauzatzeko zerbitzua kontratatzeko preskripzio teknikoen agiria
(espedientea: 2025005C0500)

Pliego de prescripciones técnicas para la contratación de un servicio de colaboración entre técnicos y técnicas municipales de Gipuzkoa en el ámbito de la normalización del euskera
(expte. 2025005C0500)

Gaien aurkibidea

1 - Kontratuaren xedea
2 - Lan programaren ezaugarri teknikoak eta gutxieneko baldintza teknikoak
  2.1 Baldintza orokorrak
  2.2. Lankidetza proiektuak eta prestakuntza jarduerak
    2.2.1. Xedea
    2.2.2. Antolamendua
  2.3. Elkarlana, saregintza eta ezagutza iturriak.
    2.3.1. Xedea
  2.4. Intranet sarearen dinamizazioa
    2.4.1. Xedea
    2.4.2. Antolamendua
  2.5. Udaltop. Topaketaren talde-lanaren dinamizazioa.
    2.5.1. Xedea

Índice de materias

1 - Objeto del contrato
2- Características del programa de trabajo y condiciones técnicas mínimas
  2.1 Condiciones generales
  2.2. Proyectos de colaboración y acciones formativas.
    2.2.1. Objeto.
    2.2.2. Organización.
  2.3. Colaboración, trabajo en red y fuentes de conocimiento.
    2.3.1. Objeto.
  2.4. Dinamización de la intranet.
    2.4.1. Objeto.
    2.4.2. Organización
  2.5. Udaltop. Dinamización del trabajo en grupo del encuentro.
    2.5.1. Objeto.

1. Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea da Gipuzkoako udaletan teknikari gisa lanean ari direnen arteko lankidetza zerbitzu bat kontratatzea euskararen normalizazioren esparruan eta, oro har, hizkuntza politika publikoaren arloan.

Enpresa lizitatzaileak zerbitzu horiek eman beharko ditu aintzat hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiak, alde batetik, eta Gipuzkoako udalek, bestetik, onartuak dituzten euskararen erabilera normalizatzeko planak, AROA, Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa eta, orobat, 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak xedatutako neurriak. Horrez gain, kontratu honen xedeak lotura dauka 2024-2027 Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoaren 2.5 helburuarekin, alegia Euskara bizitzako arlo guztietan lehentasunez erabiltzearekin eta 2. zeharkako politikarekin, Foru Aldundiaren jarduera izatea euskaratik eta euskaraz.

Kontratu honen bitartez bideratu nahi diren zerbitzuen ikusmoldea oinarritu behar da, nahitaez, etengabeko hobekuntza eta kalitaterako metodologia batean, udalen eta eragileen arteko saregintzan ikuspegi kolektiboan oinarrituta eta gizarte berrikuntzatik eratorritako lan-moldeetan.

Udalekin programaren kontratualdi honek orain arteko Udalekin programan jauzi kualitatiboa ematea izango du xede. Toki entitateekin batera hausnarketa eta proiektu jakinak diseinatzeaz (proiektu elkartuak, proiektu pilotuak) gain eta elkarrengandik ikasteaz gain, elkarrekin Gipuzkoa mailako lankidetza proiektuak udalerrietan inplementatzeko eta zabaltzeko egitura eta dinamika ipiniko da abian. Horretarako, Aldundiak bestelako bitarteko batzuk ere ipiniko ditu.

Kontratuak bere barne hartzen dituen zerbitzuen bitartez, helburu zehatz hauek bete nahi dira:

— *Lankidetza proiektuak eta prestakuntza jarduerak*: Gipuzkoako tokiko entitateen eta Aldundiaren artean lankidetza, elkarlana eta loturazko harremanak sustatzea lan programa eta proiektu zehatzen inguruan.

— *Elkarlana, saregintza eta ezagutza iturriak*: Gipuzkoako tokiko entitateetako teknikari eta hautetsien, eta baita eragile desberdinen arteko harreman sarea eta komunitate sarea hedatzeko komunikazio eraginkorra, jarraia eta iraunkorra bermatzeko mekanismoak finkatzea, eta horretarako elkargune formalak eratzea.

— *Udalen eta mankomunitateen euskara zerbitzuei laguntzea:* euskara sustatzeko lanen prozesuetan erreferentzia-esparru eta sistema desberdinak sortzen

1. Objeto del contrato

El objeto de este contrato es la contratación de un servicio de colaboración entre técnicos y técnicas municipales de Gipuzkoa en el ámbito de la normalización del euskera y, en general, de la política lingüística pública.

La empresa licitadora deberá prestar estos servicios teniendo en cuenta, por un lado, los planes de normalización del uso del euskera aprobados por la Diputación Foral de Gipuzkoa y por los ayuntamientos de Gipuzkoa, AROA, el marco estratégico para la revitalización del euskera y el empoderamiento de las personas vascohablantes, así como el Decreto 19/2024, de 22 de febrero, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la CAPV. Además, el objeto de este contrato está relacionado con el objetivo 2.5 del Plan Estratégico de la Diputación Foral de Gipuzkoa 2024-2027, relativo al uso prioritario del euskera en todos los ámbitos de la vida y con la política transversal 2, que recoge que la actividad de la Diputación Foral sea desde el euskera y en euskera.

La orientación de los servicios que se pretenden contratar mediante el presente contrato deberá basarse en una metodología de calidad y mejora continua de las formas de trabajo derivadas de la innovación social.

Este periodo de contratación del programa Udalekin tendrá como objetivo dar un salto cualitativo en el programa Udalekin. Además de diseñar junto con las entidades locales reflexiones y proyectos concretos (proyectos asociados, proyectos piloto) y aprender unos de otros, conjuntamente se pondrá en marcha una estructura y dinámica nueva para implementar y difundir proyectos colaborativos a nivel de Gipuzkoa en los municipios. Para ello, la Diputación habilitará unos medios concretos.

Mediante los servicios que comprende el contrato, se persiguen los siguientes objetivos específicos:

— *Proyectos de colaboración y actividades formativas:* promover la colaboración y cooperación entre los ayuntamientos guipuzcoanos, en torno a proyectos de trabajo concretos.

— *Colaboración, trabajo en red y fuentes de conocimiento:* establecer mecanismos que garanticen una comunicación eficaz, continua y permanente para el despliegue de la red de relaciones y del tejido comunitario entre el personal técnico y cargos electos de las entidades locales de Gipuzkoa, así como entre los diferentes agentes, constituyendo para ello espacios formales de encuentro.

— *Ayudar a los servicios de ayuntamientos y mancomunidades*: mejora de los procesos de promoción del euskera ayudando a crear diferentes

lagunduz eta horien arteko konexioak bilatuz, eta proiektuak ikuspegi integral batekin lantzea, epe luzerako estrategiak txertatuz.

— *Eraginkortasunaren eta berrikuntzaren ikuspegia txertatzea:* udalen eta mankomunitateen euskara teknikarien lan prozesuetan nahiz bitartekoetan eta ko-sorkuntzako espazioak sortzea, eta hasiberriak diren teknikariei gidaritza eskaintzea eta komunitatearekiko zubi-lanak bultzatzea.

— *Intranet sarearen dinamizazioa*: Euskara teknikarientzako prestatutako UETS intraneta kudeatzea eta edukiz elikatzea, bestelako komunikazio moldeen bidez jendarteko etengabeko harremanak indartzeko planteamendu komunikatibo zabal baten barruan.

— *Udaltop jardunaldiak.* talde-lanaren dinamizazioa: Euskal Herriko udaletako euskara zerbitzuak elkarrekin topo egiten duten urteroko topaketa da Udaltop. Jarduera hau Topaketa eguneko talde-lana dinamizatzea da.

2. Lan-programaren ezaugarri teknikoak eta gutxieneko baldintza teknikoak

Atal honetan xehatzen dira kontratatu nahi den zerbitzuak bere barne hartzen dituen gutxieneko edukien ezaugarri teknikoak (xedea, antolamendua).

Nabarmendu behar da elkarlana eta saregintza eta ezagutza iturrien alderdiak lanketa proiektuen zeharkako lan moldeak direla, eta proiektuari osotasuna ematen diotela.

Enpresa esleipendunak erreferentziazko arduradun tekniko bakarra izendatu beharko du, eta bere erantzukizuna izango da lantaldearen jarduera guztiak planifikatu, prestatu eta gauzatzea, Foru Aldundiak ematen dituen jarraibideen arabera.

Bestalde, kontratistak arreta zerbitzu bat eskaini beharko du, telefonikoa eta posta-elektroniko bidezkoa, honako ezaugarriak izan beharko dituena:

- Astelehenetik ostirala bitartean.
- Goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00etara.
- Arreta zerbitzuaren hizkuntza: arreta zerbitzuaren onuradunak erabiltzen duen hizkuntza ofiziala.

2.1. Baldintza orokorrak

- Proiektu hau osatzen duten Erakunde eta kontratistaren arteko lan hizkuntza, beraien Euskararen Erabilera Planen arabera, orokorrean, euskara izango da. Era berean, kontratuaren baitan sortutako agiri oro, euskaraz sortu beharko da; agiriaren izaera dela eta,

marcos y sistemas de referencia y buscando conexiones entre ellos y trabajar en los proyectos con una visión integral, incorporando estrategias a largo plazo.

— *Integrar la perspectiva de la eficacia y la innovación:* en los procesos de trabajo del personal técnico de euskera de ayuntamientos y mancomunidades y creación de espacios de co-creación. Guiar al personal técnico nuevo y fomentar su conexión con la comunidad.

— *Dinamización de la red de internet:* Gestionar y dotar de contenidos a la intranet UETS para personal técnico de euskera dentro de un amplio planteamiento comunicativo que potencie las relaciones continuas entre la sociedad a través de otras formas de comunicación.

— *Jornadas Udaltop*. Dinamización del trabajo grupal: Udaltop son unas jornadas de los servicios municipales de euskera de Euskal Herria que se celebran anualmente. La actividad consiste en dinamizar el trabajo en equipo del día de las jornadas.

2. Características del programa de trabajo y condiciones técnicas mínimas

En este apartado se detallan las características técnicas (objeto, organización) de los contenidos mínimos que comprende el servicio que se pretende contratar.

Hay que destacar que el trabajo colaborativo y la accesibilidad a fuentes de información y conocimiento son formas de trabajo transversales de los proyectos, que aportan globalidad al proyecto.

La empresa adjudicataria deberá designar un único responsable técnico de referencia que será responsable de planificar, preparar y ejecutar todas las actividades del equipo de trabajo, de acuerdo con las directrices que dicte la Diputación Foral.

Por otra parte, el contratista deberá ofertar un servicio de atención telefónica y vía correo electrónico con las siguientes características:

- De lunes a viernes.
- De 9:00 a 14:00 horas de la mañana.
- Lengua del servicio de atención: lengua oficial utilizada por la persona beneficiaria del servicio de atención

2.1. Condiciones generales

- La lengua de trabajo entre la Entidad y el contratista que integran este proyecto, de acuerdo con sus respectivos Planes de Uso del Euskera, será, en general, el euskera. Asimismo, toda la documentación que se genere en el marco del contrato deberá redactarse en euskera y,

beharrezkoa ez bada, bi hizkuntza ofizialetan aurkeztea.

- Hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren erregimenera lotzea kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hori garatzen duten arauetan zehaztua, besteak beste, indarrean dagoen Euskararen erabilera normalizatzeko plana onartzen duena Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan.

- Isilpekotasuna kontratua gauzatzerakoan: kontratu honetan egingo diren lan guztiak isilpekoak izango dira. Beraz, enpresa esleipendunak ezin izango du beretzat erabili kontrataturiko lanei buruzko informaziorik, ezta hirugarrenei informaziorik eman ere lan horiei buruz edo administrazioak emaniko dokumentazioari buruz. Enpresa esleipendunak eskura dituen baliabide guztiak jarri beharko ditu kontratua gauzatzerakoan eskura dezakeen informazioaren isilpekotasuna zaintzeko.

- Hizkuntzaren erabilera ez sexista egingo da bai euskaraz bai gaztelaniaz.

2.2. Lankidetza proiektuak eta prestakuntza jarduerak

2.2.1. Xedea

Lankidetza proiektuen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta tokiko entitateen euskara teknikarien artean nahiz bestelako eragileen artean partekatu daitezkeen elkarlan esparruetan sakontzea eta elkarlan horretatik martxan jarritako prozesuak zabaltzea.

Lankidetza proiektu horien gai izango dira hizkuntza politika publikoa gauzatzerakoan sortzen diren arazo tekniko guztiak. Helburua izango da, hain zuzen ere, arazo horien irtenbide partekatuak bilatzea, probatzea eta zabaltzea, etengabeko hobekuntza eta gizarte berrikuntza txertatuz.

Bestalde, prestakuntza jardueren xedea da Gipuzkoako toki erakundeetan hizkuntza politikaren esparruan lanean ari diren teknikariei nahiz hautetsiei euskararen normalizazioan baliagarriak diren tresnak eta baliabideak eskaintzea, formakuntza bidez. Formakuntza saio horietan euskararen normalizazioan jarduten dutenez gain, bestelako arloetako profesionalek ere parte hartuko dute; betiere, lan programaren xedea lortzeko lagungarri badira.

si no fuera necesario, se presentará en las dos lenguas oficiales.

- Subordinación al régimen de doble oficialidad lingüística: este contrato está sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido en el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y concretado en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera y su normativa de desarrollo, por la que se aprueba, entre otros, el Plan de normalización del uso del euskera vigente en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y sus organismos autónomos.

- Confidencialidad en la ejecución del contrato: todos los trabajos que se realicen con ocasión del presente contrato tendrán carácter confidencial, por lo que la empresa adjudicataria no podrá utilizar para sí, ni proporcionar a terceros, datos o información alguna de los trabajos contratados, ni de la documentación facilitada por la administración. La empresa adjudicataria deberá poner todos los medios a su alcance para preservar la confidencialidad de la información a la que tenga acceso durante la ejecución del contrato.

- Uso no sexista del lenguaje tanto en euskera como en castellano.

2.2. Proyectos de colaboración y acciones formativas.

2.2.1. Objeto

El objeto de los proyectos de colaboración es promover espacios de cooperación entre los servicios de euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ayuntamientos o mancomunidades y otros agentes y difundir los procesos puestos en marcha desde esta colaboración.

Será objeto de los proyectos de colaboración cualquier problema técnico relativo a la aplicación de la política lingüística pública. El objetivo será precisamente buscar, probar y ampliar las soluciones compartidas a estos problemas, incorporando la mejora continua y la innovación social.

Por otro lado, el objetivo de las actividades formativas es proporcionar, a través de la formación, herramientas y recursos útiles para la normalización del euskera, tanto al personal técnico como a los cargos electos que trabajan en el ámbito de la política lingüística en las instituciones locales de Gipuzkoa. En estas sesiones formativas participarán, además de las personas dedicadas a la normalización del euskera, profesionales de otras áreas que contribuyan a la consecución del objetivo del programa de trabajo.

2.2.2. Antolamendua

Enpresa esleipendunak, lizitazioan aurkeztutako proposamen teknikoa eraman beharko du aurrera (beharrezkoak liratekeen egokitzapenak sartu ondoren). Kontratuaren exekuzioan, enpresa esleipendunak egitura edo formatu desberdineko lanketei edo proiektuei heldu beharko die, langaiaren konplexutasunaren arabera: proiektu elkartuak, partekatze saioak, formakuntza edo bestelakoak. Lankidetza proiektuak izango dira udalen beharretatik eta erronketatik abiatuta definitu, diseinatu, inplementatu eta Gipuzkoan zabaldu beharrekoak, ikuspegi integrala kontuan izanda. Partekatze saioak izango dira, udal edo mankomunitate batzuen edo beste eragile edo erakunde batzuen praktika onak ezagutzeko guneak edo saioak. Langaiaren hedaduraren eta konplexutasunaren arabera egokitu beharko dira lanketa moduak, prestakuntza beharrak eta bestelako estrategiak. Hori dela eta, bestelako egitura duten lankidetza moduak ere martxan jarri ahal izango dira.

Lan prozesu, prestakuntza nahiz bitarteko guztietan genero ikuspegia txertatu behar da, eta erabakigune nahiz jendaurreko partaidetza guneetan emakumeen partaidetza sustatuko da

Lankidetza proiektuak urteko 10 hilabeteetan zehar garatu beharko dira.

Prestakuntza jardueren kopurua, programazioa, egokitasuna, eta egutegi zehatza izango dira kontratuaren esleipena jasotzen duen enpresak lizitazioan aurkeztutako proposamen teknikoan ageri direnak.

Prestakuntza jarduerak gainerako proiektuei edo bestelako beharrei lotuta eskainiko dira eta aurreko hauek bezala urteko 10 hilabeteetan zehar garatuko dira. Prestakuntza jardueraren hartzaileak Udaletako euskara zerbitzuetako teknikariak nahiz zinegotziak izango dira. Urtero gutxienez 4 orduko hiru prestakuntza saio antolatu beharko ditu kontratazioaren esleipendunak

Enpresa esleipendunaren ardura izango da prestakuntza jarduerak prestatzea, behar den alderdi guztietan (edukiak, irakasleak, ikasmaterialak iraupena, eta abar).

Hori hala izanik ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldaketak egiteko eskumena gordetzen du, udaletako edo mankomunitateetako teknikariekin eta enpresa esleipendunarekin adosturik.

Lankidetza proiektu bakoitza garatzeko eginkizunaz berariazko lantalde bat arduratuko da. Lantalde horretara bilduko dira udalen edo mankomunitateen euskara zerbitzuetako teknikariak nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren teknikariak. Bestalde, proiektuaren koordinazio orokorra egiteko batzorde bat eratuko da, eta Aldundiko eta enpresa esleipenduneko kideek hartuko

2.2.2. Organización.

La empresa adjudicataria deberá llevar adelante la propuesta técnica presentada en la licitación (una vez introducidas las adaptaciones que fueran necesarias). Durante la ejecución del contrato, la empresa adjudicataria deberá abordar trabajos o proyectos de diferente estructura o formato, en función de la complejidad de la tarea: proyectos asociados, sesiones para compartir proyectos, formación u otros. Los proyectos de colaboración serán aquellos que deban definirse, diseñarse, implementarse y difundirse en Gipuzkoa desde las necesidades y retos municipales, teniendo en cuenta un enfoque integral. Serán sesiones para compartir proyectos, espacios o sesiones para conocer las buenas prácticas de algunos ayuntamientos o mancomunidades o de otros agentes o entidades. Los modos de elaboración, las necesidades formativas y otras estrategias deberán adaptarse a la extensión y complejidad de la tarea. Por ello, también se podrán poner en marcha formas de colaboración con otra estructura.

Todos los procesos de trabajo, formación y recursos deben incorporar la perspectiva de género y se promoverá la participación de las mujeres en los espacios de decisión y participación pública.

Los proyectos de colaboración deberán desarrollarse a lo largo de los 10 meses del año.

El número, programación, idoneidad y calendario concreto de las actividades formativas serán los que figuren en la propuesta técnica presentada por la empresa adjudicataria del contrato.

Las actividades formativas se impartirán vinculadas al resto de proyectos u otras necesidades y se desarrollarán al igual que las anteriores a lo largo de los 10 meses del año. La actividad formativa tendrá como destinatarios a técnicos y concejales de los servicios municipales de euskera. El adjudicatario de la contratación deberá organizar un mínimo de tres sesiones formativas anuales de 4 horas.

La empresa adjudicataria será responsable de la elaboración de las actividades formativas en todos los aspectos necesarios (contenidos, profesorado, duración de los materiales didácticos, etc.).

No obstante lo anterior, la Diputación Foral de Gipuzkoa se reserva la facultad de realizar las modificaciones de acuerdo con el personal técnico municipal o mancomunado y la empresa adjudicataria.

Cada proyecto de colaboración será asumido por un grupo de trabajo específico que se encargará en desarrollarlo. En este grupo de trabajo participará tanto personal técnico de los servicios de euskera de los ayuntamientos o mancomunidades, como personal técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Por otra parte, se constituirá una comisión de coordinación general del proyecto, en la que

dute parte bertan, gutxienez.

Aurreikusten da jarduera honek kontratuaren bitartez eman beharreko zerbitzuen arduraldiaren % 65 ekarriko duela.

2.3. Elkarlana, saregintza eta ezagutza iturriak.

Puntu honen xedea izango da orain arteko antolakuntza moldeak hobetzea eta teknikarien sarea indartzea, elkarguneak sendotuz, etengabeko hobekuntza eta gizarte berrikuntza txertatuz.

Enpresa lizitatzaileak proposamenak aurkeztu beharko ditu Udalekin programaren eta Gipuzkoako udal eta mankomunitateen arteko interakzioa, komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko, bai lurralde-mailan, bai sektore-mailan. Enpresa lizitatzaileak Udalekin programaren eragin-eremua zabaltzeko erabil daitezkeen hobekuntzak aurkeztu beharko ditu, eta toki-erakundeetako euskara-teknikari berriei harrera egiteko proposamena garatu beharko du.

Horrez gain, enpresa lizitatzaileak proiektu ereduen arteko egituraketa ere egin beharko du, egitura bakoitzaren antolamendu ezaugarriak kontuan hartuta.

Era berean, Udalekin programa berriaren xedea izango da beste arlo batzuetako eragileekin elkarlanean aritzea, eta haiekin lankidetza sarea zabaltzea. Horretarako, enpresa lizitatzaileak beste arloei buruz eta beste arloetako adituei buruz ezagutza eskuratu beharko du, horretarako estrategia egokia erabiliz.

Orain arte adierazitako lanak, lizitazioan aurkeztutako proposamen teknikoan zehaztutakoaren arabera egin beharko du enpresa lizitatzaileak, kontratuaren arduradunak iritzi dion aldaketak egin ondoren.

Aurreikusten da jarduera honek kontratuaren bitartez eman beharreko zerbitzuen arduraldiaren % 20 ekarriko duela.

2.4. Intranet sarearen dinamizazioa

2.4.1. Xedea

Gipuzkoako toki erakundeetan hizkuntza politikaren esparruan lanean ari diren teknikarien arteko lankidetza erraztearren eta planteamendu komunikatibo zabal baten baitan, Gipuzkoako Foru Aldundiak intranet sare bat (Udal<>ekin) gauzatua du.

Kontratu honen bitartez eman beharreko zerbitzuen artean dago intranet sare hori berritzeko proposamenak landu eta burutzea Gipuzkoako Foru Aldundiko solaskidearekin batera eta intraneta berritzearekin batera bertako edukiak

participarán al menos miembros de la Diputación y de la empresa adjudicataria.

Se prevé que esta actividad supondrá el 65% de la dedicación de los servicios a prestar mediante el contrato.

2.3. Colaboración, trabajo en red y fuentes de conocimiento.

El objetivo será mejorar las formas organizativas existentes y reforzar la red del personal técnico, fortaleciendo los puntos de encuentro, incorporando la mejora continua y la innovación social.

La empresa licitadora deberá presentar propuestas para mejorar la interacción, comunicación y coordinación entre el programa Udalekin y los ayuntamientos y mancomunidades de Gipuzkoa tanto a nivel territorial como sectorial. La empresa licitadora deberá presentar las mejoras que se puedan utilizar para ampliar el área de influencia de Udalekin y desarrollar la propuesta de acogida al nuevo personal técnico de euskera de las entidades locales.

La empresa licitadora deberá presentar un planteamiento detallado de la estructuración entre diferentes modelos de proyecto, teniendo en cuenta las características organizativas de cada estructura.

Asimismo, el objetivo del nuevo programa Udalekin será colaborar con agentes de otras áreas y ampliar la red de colaboración con ellos. Para ello, la empresa licitadora deberá adquirir conocimientos sobre otras áreas y expertos de las mismas, utilizando para ello la estrategia adecuada.

La realización de los trabajos señalados hasta la fecha deberá realizarse por la empresa licitadora de acuerdo con lo especificado en la propuesta técnica presentada en la licitación, tras las modificaciones que considere el responsable del contrato.

Se prevé que esta actividad suponga el 20% de la dedicación de los servicios a prestar mediante el contrato.

2.4. Dinamización de la intranet

2.4.1. Objeto

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene implementada una red intranet (Udal<>ekin), destinada a facilitar la colaboración del personal técnico de las entidades locales de Gipuzkoa que trabaja en el ámbito de la política lingüística.

Entre los servicios a prestar a través de este contrato se encuentra la elaboración de propuestas de renovación de la red de intranet y realización de las mismas en colaboración con el interlocutor de la Diputación Foral de

etengabe eguneratzearena.

2.4.2.Antolamendua

Enpresa lizitatzailearen ardura izango da Intranet sarean argitaratu beharreko edukiak sortu, prestatu edo dokumentatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako jarraibideen arabera. Jardunbide hori modu desberdinetan egin beharko du enpresa esleipendunak, hartzailearentzat erabilgarria eta erakargarria izan dadin: dokumentazioa, webguneetara estekak, ikusentzunezkoak, etab.

Horrez gain, gipuzkoarrentzat interesekoak diren neurrian, proiektuetatik eta teknikarien arteko elkarlanetik eratorritako ekimen eta proiektuei kanpo proiekzioa emango die kontratudun enpresak Aldundiko solaskidearekin adostuta.

Enpresa esleipendunak gutxienez astean albiste bat argitaratu beharko du. Albistearen gutxieneko ezaugarriak honako hauek dira:

- Gaia: lankidetza proiektuetan lantzen ari diren gaiei buruzkoa, baita teknikarientzat interesgarriak izan daitezken proiektu berritzaileei buruzkoak ere, edo beste herrialdeetan hizkuntzen alorrean lantzen ari diren proiektu eta ekimenei buruzkoa.

- Formatua: sarrera gisa albistearen muinaren paragrafo bat egin behar da, eta argazki edo irudi esanguratsu edo argigarri batek lagundu beharko du irakurketa erakargarria izateko.

Kontratuaren indarraldian zehar, enpresa esleipendunak emakumeen eta gizonezkoen arteko presentzia orekatua bermatu beharko du intraneteko albisteetan eta gainerako edukietan.

Kontratuaren bitartez eman beharreko zerbitzuen barruan, enpresa esleipendunak gutxienez astean behin eguneratu beharko ditu intranet sarearen edukiak.

Aurreikusten da jarduera honek kontratuaren bitartez eman beharreko zerbitzuen arduraldiaren % 10 ekarriko duela.

2.5. Udaltop jardunaldiak. Talde-lanaren dinamizazioa.

2.5.1. Xedea.

Udaltop urtero egiten diren Euskal Herriko udal euskara zerbitzuen jardunaldiak dira. Enpresa esleipendunak talde-lana dinamizatzeko edo topaketa-eguna gauzatzeko eginkizunak bete beharko ditu. Zereginak horretarako urtero eratzen den batzordeak gidatuko ditu. Kontratu honen balorazioan ez da kontuan hartuko Udaltopen inguruko hobekuntza-proposamenik, dinamizazioko aparteko zeregina baita.

Aurreikusten da jarduera honek kontratuaren bitartez

Gipuzkoa y la actualización continua de sus contenidos.

2.4.2. Organización.

Será responsabilidad de la empresa licitadora la creación, preparación o documentación de los contenidos a publicar en la intranet, de conformidad con las indicaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Esta práctica deberá ser llevada a cabo por la empresa adjudicataria de diferentes formas para que resulte útil y atractiva para el destinatario: documentación, enlaces a webs, audiovisuales, etc.

Además de eso, en la medida en que sean de interés para la ciudadanía guipuzcoana, la empresa contratada dará proyección externa a iniciativas y proyectos derivados de proyectos de colaboración entre técnicos de acuerdo con el interlocutor de la Diputación.

La empresa adjudicataria deberá publicar como mínimo una noticia a la semana. Las características mínimas de la noticia son las siguientes:

- Tema: asuntos relacionados con materias de los proyectos de colaboración, así como temas de interés general para las personas técnicas en campos como proyectos innovadores, o iniciativas que se desarrollen en al ámbito de las lenguas en otros países.

- Formato: la noticia deberá estar precedida por un breve párrafo que resuma su contenido y deberá ir acompañada de una fotografía o imagen significativa para hacer atractiva su lectura.

Durante la vigencia del contrato, la empresa adjudicataria deberá garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en las noticias y resto de contenidos de la intranet.

Dentro de los servicios del contrato, la empresa adjudicataria deberá actualizar los contenidos de la red intranet con una periodicidad mínima semanal.

Se prevé que esta actividad supondrá el 10% de la dedicación de los servicios a prestar mediante el contrato.

2.5. Jornadas Udaltop. Dinamización del trabajo grupal.

2.5.1. Objeto.

Udaltop son unas jornadas de los servicios municipales de euskera de Euskal Herria que se celebran anualmente. La empresa adjudicataria deberá abordar las funciones de dinamización del trabajo en equipo o ejercicio del día del encuentro. Las tareas serán lideradas por la comisión que anualmente se constituya para tal efecto. En la valoración de este contrato no se tendrá en cuenta ninguna propuesta de mejora en torno a Udaltop, ya que se trata de una tarea extraordinaria de dinamización.

Se prevé que esta actividad supondrá el 5% de la

eman beharreko zerbitzuen arduraldiaren % 5 ekarriko duela.

dedicación de los servicios a prestar mediante el contrato.

Donostian, 2025eko maiatzaren 26an
En San Sebastián, a 26 de mayo de 2025

IÑAKI ARRUTI LANDA - 15989054Y

Digitalki sinatuta norengandik: IÑAKI ARRUTI LANDA - 15989054Y
Data: 2025.05.26 12:58:07 +02'00'

Hizkuntza Estrategiako zerbitzuburua
Jefatura del Servicio de Estrategia Lingüística